



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Esperientzia honetan, hegaztiak izango dira gure gidariak. Prismatikoak hartuta, haien bizimodua, ohiturak eta Plaiaundi haientzat zergatik den hain garrantzitsua aztertuko dugu.

Hori gutxi ez balitz, eraztungile bihurtuko gara une batez espezie liluragarri hauek nola ikertzen eta zaintzen diren jakiteko. Eta auskalo! Agian, urrutiko lurretatik milaka kilometro egin dituen hegazti migratzaileraren bat ikusteko zortea izango dugu eta eraztuna jartzeko aukera izan.